



Prozesu Eratzailerako araudia

ehbildu



EH BILDUREN KONGRESU ERATZAILEAREN PROZESURAKO ARAUDIA

1. Parte hartzeko izen ematea

1.1. EH Bilduren prozesu eratzailean parte hartu nahi duen norbanako orok izena eman beharko du telematikoki edo aurrez-aurre, apirilaren 25etik ekainaren 4ra, data biak barne, ondoren zehazten ditugun helbideetan:

- Kongresua.ehbildu.eus
- Herrialdeetako EH Bilguneetan:
 - Bilbo
 - Donostia
 - Gasteiz
 - Iruña

Izena ematerakoan ondorengo datuak eman beharko dira: Izen Abizenak, NAN zenbakia, e-posta helbidea, telefono mugikor zenbakia, helbidea.

1.2. Arestian aipaturiko epean izena ematen ez duenak ez du parte hartzeko eskubiderik izango.

1.3. Kongresu eratzailean parte hartzeko izena ematen duten norbanakoek, behin Prozesu eratzailean ekainak 17an bukatu ostean, berriro izena eman beharko dute, baldin eta Bilkide (EH Bilduko afiliatu) izatera pasa nahi badute. Izan ere, prozesu eratzailearen kongresua ekainak 17an Bilboni egin ostean ekingo baitzaio Bilkideen zentsoaren osaerari, eta horretarako formalki EH Bilduko egituratik helarazitako bideetatik egin beharko da atxikimendua.

2. Bozka eskubidea

2.1. EH Bilduren Kongresu eratzaileko prozesuan bozkatzeko eskubidea izango dute aipaturiko prozesuan parte hartzeko izena eman dutenak.

2.2. Ekainak 12-16: telematikoki (ekainaren 12ko 00:00etatik ekainaren 16ko 23:59ra) eta EH Bilguneetan ezarriko diren ordenagailuen bidez (10:00tik-13:00ra eta 16:00etatik-19:00ak arte) aukeratu beharko dira:

- Mahai Politikoko ekipoa.
- Bakoitzari dagokion herrialdeko arduraduna.
- Idazkari sektorialak.

2.3. Ekainak 17an egingo den Kongresuan bozkatuko dira:

- Dokumentu politiko-organizatiboa
- EH Bilduko Estatutuak

Halaber, Ekainak 17an ezagutaraztera emango dira ekainak 12-16 bitartean ardura desberdinetarako izan diren bozketen emaitzak.

3. Abalak

3.1. Hautagai izateko halabeharrez abalak jaso beharko dira. Abal horien baliogarritasuna Kongresu prozesurako espreski sortuko den Berme Batzordeak kontrastatuko du, telematikoki. Berme Batzordeak balio gabe utzi ahal izango du abala, baldin eta ez badu araudi honetan jasotako baldintza betetzen. Abalak publikoak izango dira. Bestalde, pertsona bakoitzak abal bakarra eman ahal izango du aukeratu beharko den ardura-bloke bakoitzeko. Alegia, pertsona bakoitzak abalatu ahal izango du mahai politikoko ekipo bakar bat, bere herrialdeko arduradun bakar bat eta idazkaritza sektorial bakoitzeko arduradun bakar bat.

3.2. Abalak ondorengo datuak jaso beharko ditu: abalistaren izena, abizena, NAN zenbakia, helbidea, eta oniritzia, adieraziz babesten duela aipaturiko hautagaitza. Oniritzi ematea abalistak jasoko duten email bati erantzunez emango da.

3.3. Abalak EH Bilduko Kongresu Eratzailean parte hartzeko izena eman duten kideen artetik jaso beharko dira, apirilak 25 eta ekainak 4 bitartean. Ez dute baliorik izango Kongresuko prozesu eratzaillean parte hartzeko izena eman ez duten kideenak.

3.4. Ardura bakoitzerako aurkeztu beharreko abal kopurua araudi honetan finkatutakoa izan beharko da, ez gehiago ez gutxiago.

4. Hautagaitzen betebeharrak

Hautagaitza guztiak apirilak 25tik ekainak 4 bitartean izen eman beharko dute. Eta horretarako, kasu bakoitzean baldintza zehatz batzuk bete beharko dira:

4.1. Herrialdeko arduraduna: herrialdeko arduradunera hautagaitza aurkezteko ondorengo irizpideak bete behar dira:

- Bai hautagaia bai bere abalistak herrialde horretakoak izan beharko dira.
- Abal kopurua herrialdeka:

- Araba: 20
- Bizkaia: 50
- Gipuzkoa: 40
- Nafarroa: 30

4.2. Lehen Kongresu honetan, Mahai Politikoko ekiporako proposamen adostu bat egingo dute alderdiek. Aipaturiko ekipoa 6 kidez osatua egongo da. Nolanahi ere, hautagaitza alternatiboak aurkezteko aukera izango da. Edozein kasutan, 60 abal bildu beharko dira.

4.3. Arloetako Idazkaritzetarako hautagaitza aurkezteko aukera kide guztiek izango dute, beti ere, 50 abal bildu eta aurkezten badituzte. Aipaturiko Idazkaritzak ondorengoak izango dira:

1. Ekonomia Idazkaritza
2. Lurralde Antolaketa Idazkaritza
3. Estaturagintza Idazkaritza
4. Ingurumena Idazkaritza
5. Osasungintza Idazkaritza
6. Hezkuntza Idazkaritza
7. Hizkuntza Idazkaritza
8. Kultura Idazkaritza
9. Askatasun Demokratikoak Idazkaritza
10. Parte Hartzea – Gobernantza Idazkaritza
11. Gazte Idazkaritza
12. Feminismoko eta Sexu eta Genero askatasuneko Idazkaritza
13. Kultur Aniztasun Idazkaritza
14. Diaspora Idazkaritza
15. Adindunen Idazkaritza
16. Gizarte politika Idazkaritza

4.4. Hautagaitza guztien bozketak ekainak 12tik 16 bitartean emango dira, bi data horiek barne. Bozkatzeko erabiliko diren formulak 2. artikuluan aipaturikoak izango dira.

4.5. Berme Batzordea: lehen kongresu honetan alderdiek proposatuko dute 5 kidez osatua egongo den berme batzordearen hautagaitza, eta ez da aukerarik egongo proposamen alternatiboetarako. Talde honetako kide izateko ezin izango da bestelako barne kargurik zein kargu publikorik izan.

4.6. Kontuen Batzordea: lehen kongresu honetan, alderdiek proposatuko dute 3 kidez osatua egongo den batzorde honen hautagaitza, eta ez da aukerarik egongo proposamen alternatiboetarako. Talde honetako kide izateko ezin izango da bestelako barne kargu zein kargu publikorik izan.

5. Dokumentuei ekarpenak

5.1. EH Bilduko Kongresu Eratzaillearen prozesuan parte hartuko duten kideek aukera izango dute apirilak 25ean aurkeztuko diren eta ekainak 17an bozketara jarriko diren dokumentuei ekarpenak egiteko apirilak 25tik ekainak 4ra.

Ekarpenak ehbildu@ehbildu.eus helbidera igorri beharko dira, edo herrialdeetako EH Bilguneetara helarazi, 2. artikuluan aipaturiko ordutegian. Azkenik, espresuki antolatuko diren batzarretan ekarpenak egiteko aukera izango da.

Ekarpenen kudeaketa horretarako espresuki alderdiek eratuko duten lantaldeak kudeatuko du, eta egileei ekainak 15a baino lehen helaraziko zaie horien gaineko iritzia, txostenetan barneratuak izan diren ala ez, eta zergatiak.

6. Argibideak

Edozein argibiderako jo 607690403 telefonora eta ehbildu@ehbildu.eus helbidera.